

# ¡Aldiz aldiz...!

JOSTIRUDIA EGINTZA BATIAN

BARRIOLA TA AIZPURUA-TAR JUAN AVELINO-k

IDATZIA

TA AZKOITI'ko EUSKAL JAI-ALDIETAN SARITUA

1910-garren URTIAN

DONOSTIYAN

J. BAROJA TA SEMEEN MOLDIZTEGIAN

1911-an

## IRUDIGILLEAK

EUJENIO	Zapatagillea
KRISTOBAL	Indianua
LEONCHIO	Ikasle gaztia ( <i>estudiantia</i> )
LIBORIO	Asistentia
ROMUALDO	Artilleri-ko kapitana.

EUJENIO da sasoiko gizaseme bat. Egongo da maukutzik eta mantal urdiña jantziyakin.

KRISTOBAL da zarra, irurogei urteen inguruan dabillena. Guztiz ondo jantziya, bañan kaleko antzean chapel *ongo* esaten zayonakin, esku makill edo basto eldu-leku zillardunakin, erlejuaren katia lodiya ta zintzilikayo aundi duna.

Illia du beltza ta ondo orrastuba erreten zuzen ta garbiyak. Oso chukuna ta urtiak eskutatu nayian dabilena.

LEONCHIO da gastia, ogei ta bost urte ingurukua. Ondo jantziya chapel biguñakin, bañan ibillera ta agerkera guztiyetan lazaya ta utsi-shamarra.

LIBORIO, soldadu serbitzen dagon mutil gaste bat.

ROMUALDO, gizon beltzaran itzuzi bat. Sudurra du motz shamarra ta ezpainpeko bizarrak beltzak eta luziak. Erderaz *chaké* esaten zayon jazkeraz ondo apaindua. Eskuan makilla.

Ezker-eskubiyak ikuslienak.

## EGINTZA BAKARRA

Iruditegiyak antzarpetuko du zapatagille baten denda arlotecho bat, laburra lekuz eta gauzaz. Eskubitan edukiko du lan tokiya; mai-shar batekin eta bi alkichokin osatuba. Mai gañian laneko tresnak, arratillua, iltze potuak, ariyak... Mayetik zintzilik kalamo puntak, burniyak... Lurrian, maipian, tiñakua, ta inguruan zapatazar batzubek, *ormak*, jo-arriya, mallua... Atzian orman (paretian) bi iltzetatik, zintzilik boina ta chamarra.

Denda'k du atzeko ate bakarra *kristal duna*, bi orrikua, bañan bat bakarrik erekitzen zayona. Erekitzen ez dan alderdiyan dago *eskaparate* bat. Ezkerretan, atzian, eseri-leku bat gañian ihspillu batekin ta lurrian *alfombra* chiki bat dubela. Lekuz-leku *shanto* batzubek eta beste zerbait gauza. Mayaren aurrian denda erdibitzen dubela egurrezko ichi chiki bat, *mostradore* baten antzera bi aldietatik, atze ta aurre sarrera dubela. Ichi onen onduan *silla* bat.

## LENBIZIKO IRUDIA

## EUJENIO (bakarrik.)

*Eujenio, zapatagillea, ariko da zapata-zar bati takoya berritzen malluz juaz.*

EUJENIO        ¡To... to... to...! zapata zar aben jabia emen baneka ¡a zer tapatekuak emango nizkaken bere sudur okerrian!... ¡Neskazar... sorgin... petral... argal... zipotz... itzuzi... arlotia!!... (*Itz bakoitzian emango du mallukazo bat; azkenian bi edo iru.*) ¡Berriz ere egongo zera, bai, neska-zar! Ez dezu zuk soratuko iñor, oin polit choragarriya gona petik erakutzita! (*Labanekin puska batzubek ateriaz.*)

Berritan, luzatzeko, arrabeteko takoya biar ditek, eta gero zapatagillea aberastutzeko bildurraz, orporaño jechi arte eztizkitek ekartzen berritzera. (*malluz berriz juaz*) ¡Ez ote det zuzenduko!... ¡a ja ja... ja ja...! lukainka motza ziruiik!... ¡au dek ichura! (*erneatu ta sokora botiaz.*)

¡Milla arranokin ua basterrera!... etzaut batere geyo ikutuko. (*Alcha ta aurreatuaz.*) Lanteri madarikatua. Egun guztiyan alkiyan lotuta egon biar, bi baburrun ale jateko... (*Patrikari elduaz.*)

Ezer ez... igandian gelditu zitzaizkidan chakur batzubek bota nituen atzo zurrutian, astelen egin da, eta orain zintzurra bustitzeko ezer ez... eta atzo baño egarri geyagokin... ¡Neska-zar orren zapatak ditek kulpa... baniak nunbaitera. (*Mantala gerriyan bildu ta ate aldera jua bitartean abestuko du*)

Neska-zar, zar, zar  
*denbora pasatu*  
¿zertarako lenago  
etziñan ezkondu?

(*Oso samiñ eta atsegabez*)

Nik eziñ esan  
iñork ez esan  
¡orreatatik neska-zar  
gelditu nintzan!

*(Atian bertan biurtuaz)*

¡Arranua!... ¡jemen zetorren eche-jabia!... Etzekiat nik  
zer dabillen inguru abetan! ¿Eche-errenten eske ote  
dator berriz? ¡Garai onian!... juango dek etorri  
bezela.

## II<sup>en</sup> IRUDIA EUJENIO ta KRISTOBAL

*Kristobal azalduko da, eta egun on eman ondoren geldituko da ate  
onduan karrikara begira.*

KRISTOBAL Egun on, Eujenio.  
EUJENIO ¡Onera zetorrek! Jarri nayan lanian... Bašo erdiyaren  
ordez artu dezatan neska zarraren zapata. (*Eskuan  
artuaz.*) ¡Atoz aingeruchuen oin polita!  
KRISTOBAL (*Len bezela ate ondotik.*) Egun on.  
EUJENIO Egun on. (*Malluaren ordez artuta asiko da zapata  
berakin arriya juaz.*) ¿Zer ari naiz ni?... len gaizki  
bazegon, orain okerrako jarri det... bañan ¿zer egiten  
du gizon orrek or?  
KRISTOBAL (*Len bezela.*) Egun on, Eujenio.  
EUJENIO (*Indar aundiyakin.*) Baita beorri ere ¡jegin on!!  
KRISTOBAL (*Sartuko da parrez eta oraindik karrikaruntz begira.*)  
Egun on, Eujenio. (*Eujenio'k begiratuko diyo, bañan  
eztiyo erantzungo.*) Egun on, Eujenio.  
EUJENIO Emezortzi bider erantzun diyot.

KRISTOBAL           ¿Neri?... ¿noiz?

EUJENIO               Orain... *kikilibiotan* asi zala uste nuen ate ondolik.

KRISTOBAL           Bai, *presisamente* ortakoše gogua ekarri det. (*Bat batian asarretuaz.*) Ordubete biar izandu det onera irichitzeko.

EUJENIO               Chinisten det, emengo antzera ibilli bada.

KRISTOBAL           Bai, bide guztian onela etorri naiz... (*Erran egiñaz*)

EUJENIO               ¿*Kikilibiotan*?

KRISTOBAL           Ez, zuregatik *chingoka*... ¿zer jarri nazu onen barrenian? (*Soñeko bota erakutziyaz.*)

EUJENIO               Zea, bost duroko enbat.

KRISTOBAL           Bost ezik ogei ere artzeko gayian nago. *Presisamente* emen dakaizkit zor nazkitzun lau illabeteko errenten chartelak.

EUJENIO               Gorde bitza ondo, galdu gabetanik, orrenbeste baliyo duten paperak.

KRISTOBAL           ¿Noiz eman biar nazu diruba?

EUJENIO               Aldetanian.

KRISTOBAL           ¿Noiz izango da egun ori?

EUJENIO               Erraza da asmatzen... ¿Sorgiña naizela uste aldu etorkizunaren berri jakiteko?

KRISTOBAL           ¿Zuriak geyo?... aidian jua biar dezu denda onetatik ¡bai! (*Lurrian ostiko aundi bat joko du eta beriala egingo du antziya.*) ¡¡Ai!!... sartu zait estietaraño!

EUJENIO               ¿Nere dirua?

KRISTOBAL           Zure... demoniñua... ¡ai! ¡ai!...

EUJENIO               Bañan ¿zer du?

KRISTOBAL           Atera nazu aguro, atera nazu; bañan poliki. (*Esheri ta bota erakutziyaz.*)

EUJENIO               ¿Iltze enbat aldaka?

KRISTOBAL           Iltzia edo estena eztaikit, bañan guchiye naz onenbestekua bada. (*Biatza beziñ aundiya.*)

EUJENIO Ori maiz gertatzen da... ¿eta orrengatik orrenbeste zalaparta?

KRISTOBAL Zabiltz aguro kaikua. (*Eujenio tinkaka asiko da bañan beriala geldi erasiko du.*) Zaude, zaude, galtzerdiya trabatua dago ta puskatuko nazu. (*Askatuko du barrengo galtza zuriya, kenduaz zazpi edo zortzi alditan bilduba daukan lokarriya.*) Ia orain galtzerdi ta guzti ateratzen nazun... ¡ai!... ¡poliki! ¡ai! ¡ai!

EUJENIO (*Ateriaz batian bota ta galtzerdiya.*) ¡Bapo! ¡ara emen lanperna!

KRISTOBAL Nere oin gašua... ¿zer daka?

EUJENIO Utza, orratzen burua añako iltze muturra.

KRISTOBAL Atera zayozu ondo. (*Jantziko du galtzerdiya eta juango da ate ondora.*)

EUJENIO ¿Zer ote du or orrek? ¡Beste maister enbaten sai ote dago dirua eskatzeko? Gizarajuak zoluerdi au ezik beste bi ere urratuko ditu neriak artu orduko.

KRISTOBAL ¿Atera aldiyozu ondo?

EUJENIO Bai, ar beza.

KRISTOBAL Eujenio, mesede bat egin biar nazu.

EUJENIO Nai duben guztiya, dirua ematia ez bada.

KRISTOBAL Tori eskutitz au, eta eraman zazu aurreko echeko bigarren bizitzara. Galdetu zazu Rosita Sudurpoliteneko'zaz eta eman zayozu berari, esanaz, erantzupena eguardirako nainukela ta... zeroni juango zerala billa... ¿ezta ala?

EUJENIO Bai, bai... ¿beste ezer ez?

KRISTOBAL Ez, ori ondo egiten banazu barkatuko dizut...

EUJENIO ¿Eche-errenta?

KRISTOBAL Ez, lenagoko gaizki esanak, eta emango dizut errentaren alde gorde detan zoluerdi aben dirua.

EUJENIO Eskarrikasko, beriala emango balia, zergatik... (*Zintzurrari elduaz.*)

KRISTOBAL Orain patrikan eztakat; bañan ekarriko dizut beriala, echera nijua ta diru billa amabostekua langilleari emateko.

EUJENIO Bai, diru gauz oyetan zenbat eta lenago obe.

KRISTOBAL Banijua ba, bañan ia tajuz egiten nazun eskutitz orren tratuba.

EUJENIO Laga neri, ondo esagutzen det. Sudurpoliteneko Arroša.

KRISTOBAL Arroša ez, Rošita. (*Irtenaz.*) Rošita... Rošita...

### III<sup>en</sup> IRUDIA EUJENIO ta LEONCHIO

*Leonchio sartzeakuan egingo du Kristobalekin estropoz; ibilliko dira ezkerretara ta eskubira, leku egin nayian alkar galaziyaz eta azkenik Leonchio'k erdiyan geldituaz esango du.*

LEONCHIO Ezkerrera edo eskubira; batera edo bestera. (*Egingo du batera eta juango da Kristobal.*) ¡Amaika kaiko Ameriketara aberastutzen da, eta au ere bai! I Eujenio ¿diru billa alukan orain ere?

EUJENIO Bai, mutil, gaur bigarren aldiz.

LEONCHIO ¿Eta zer esan diyok?

EUJENIO Gogora etorri zaidan guztiya, sartu ziyuat anketik iltzia, ta alaz-guztiz ere egundaño baño alayago juan dek.

LEONCHIO (*Eujenio'n aurrian eseriyaz.*) ¿Dirua eman aldiyok ba?

EUJENIO ¿Dirua? Berak eskañi ziak.

LEONCHIO Erotu egin dek orduan.

EUJENIO Baziruik zerbait. Emakumiari idazten ere asi dek eta.

LEONCHIO ¿Nola? ¿nola?...

EUJENIO Begira akiyok. (*Eskutitzaren gaña irakurriyaz.*) “Rosita Sudurpoliteneko”, or aurreko neska gaste eder orrentzat.

LEONCHIO ¿Ta iri utzi aldik?

EUJENIO Ori berari ematiengatik agindu ziak ba dirua, bañan ez niak abek egin artian, laister billa dizkiat eta. (*Erasoko diyo lanari eskuittza mai gañian lagata Leonchio’k artuta ta erekiko du, eta irakurtzen ariko da parrak galerazi arte.*)

LEONCHIO ¡Aja... ja... ja... ja...!!

EUJENIO ¿Zer dek?... ¡mutil! ¿zer egin nak?

LEONCHIO Utsa, irakurtzen asi... ¡aja... ja...!

EUJENIO ¡Chautu nak Leonchio!... Orain nola eraman biar diat nik ori.

LEONCHIO Entzun zak zer jartzen duben, apur bat entzun zak.

EUJENIO Eztiat nik zer jakiñik, ekatzak.

LEONCHIO ¡Ori dek ušoko umia!

EUJENIO Ekatzak, Leonchio.

LEONCHIO Ez, irakurtzian.

EUJENIO Abil ba azkar.

LEONCHIO Entzun zak:  
*“Konparaziyorik gabeko Rošita, Donostiko lore preziosa. Zu ezagutu zindutanetik ez naiz geyo nere biotzaren jabe eta dabilkit galdurik kalma guziya, saltoka ta saltoka.*

EUJENIO ¿Iltzia ote daka an ere?

LEONCHIO “Zure begi ederrak naukate *inutilizatua*, ta gau ta egun, goiz ta artzalde, beti, beti, nere *imajinasioa* zure ondotik dabil. ¡¡A ermosa!!”

EUJENIO ¿Ikusiko dek?

LEONCHIO Ezta aguria motela:  
*“Siertamentian Jaungoikoak alkartu naiditu Rošita ta Kristobal. Orrengatik atrebientzi an artzen det seguridadian zuk ondo artuko dezula nere*



*pensamentua. Presisamente eche berriya egiten ari naiz eta an jarri genezake gure palazio ta kabiya. Responditu nazu bayetz eta egingo nazu jo Rošita presiosa! Gizonik dichosoena.- Kristobal de los Ernialdes."*

- EUJENIO                   ¿Ori jartzen aldu?  
LEONCHIO               Ori bera, ta ago, zerbait geyo ere bai: "Egiten ari naizen eche berriak balio ditu berrogeitabi milla peso, ta beste geyo ere baditut."
- EUJENIO                   Ori beita dek, obeto eltzeko.  
LEONCHIO               Beitakin ere ez dek erraz amo oker orri eltzen.
- EUJENIO                   ¿Rositak naiko ote du?  
LEONCHIO               ¿Milla duro asko ditulako bakallu gasi-ori artu?  
EUJENIO                   ¿Bakallua!... šalchan ondo maniatua ziok ordian!  
LEONCHIO               Ago išilik, ori ez likek senarra izango, baizik diruz betetako eltze zarra. (*Zimurtu ta biribildu ta botaka du eskutitza tiñakura.*)
- EUJENIO                   ¿Zer ari aiz?... ¿laga zak ori! (*Alchata ta oso bizi.*)  
LEONCHIO               ¿Chorokeri au eramatera juango alaiz ba?  
EUJENIO                   ¿Astua i!... neri zertzak... ¿Ezan eztiat ba ori eramatiengatik eskañi naula dirua?
- LEONCHIO               Ori beste gauzik dek.  
EUJENIO                   Ta eztaik ik nere eche jabia dala, ta lau illabete zor dizkatela... ta...
- LEONCHIO               Ta... ¿zer geyo?  
EUJENIO                   Ta i chachu bat aizela... i... i... zazpi urtian Madrid'en sendagille ikasten jardun ta oraindik urte bete osatu eztekana...
- LEONCHIO               Ta zortzigarren urtian ez nak juango dirurik ez nautelako ematen.
- EUJENIO                   Iri, iri dirua, ua emendik bestela...  
LEONCHIO               Juango nak, baño irekin... bašo erdi bat eratera.

EUJENIO *(Tiñakutik eskutitza ateriaz.)* Ua emendik, bestela botako diat mallua... ¡eskutitza jarri duben ichuran!... ¡gizonak ala emandako eskutitza!

LEONCHIO Era orretan Kristobal baño itzuziyagua ago.

EUJENIO ¡¡Leonchio!!

LEONCHIO *(Beti par antzian.)* Sendagille eznikan ikasiko, bañan neskari idazten ondo zekiat, eta eskutitz ori egingo diat berriz.

EUJENIO Bai, ik nai dekana... bañan...

LEONCHIO Ez mutil, ori bera, itz oyekin, izki *(letra)* berakin, dana dan bezela; indianuak berak berezaz artuko dubena.

EUJENIO Egin nazak ba beriala, nai badek nik geyo arpegira begiratzia.

LEONCHIO ¿Bai aldekerkin?...

EUJENIO Emen ez.

LEONCHIO Orduan guazemak ausoko ardoteaira ta an egingo diat.

EUJENIO Ua bakarrik, lana zeukat.

LEONCHIO ¿Eztek etorri nai?

EUJENIO Ez.

LEONCHIO Zaputzen gatik amaiketakua galduko dek.

EUJENIO *(Eskutitza emanaz.)* To au bestia egiteko.

LEONCHIO Eztiat biarriak, buruz bazekiat.

EUJENIO ¿Dana?

LEONCHIO Dana.

EUJENIO Egintzat ba azkar, gero ikusiko diat. *(Eskutitz bustiya zabalduko du mai gañian. Sartuko da Liborio ta geldituko da atzian Leonchio jua artian.)*

LEONCHIO Emen nak beriala i aiškiratzera. *(Ate ondotik.)* I, ta ¿jarriko aldet Rošita *ermosa*?

EUJENIO Baita *presiosa* ere.

LEONCHIO ¡Aguriari begira!

EUJENIO Iri zertzaik

IV<sup>en</sup> IRUDIA  
EUJENIO ta LIBORIO

LIBORIO           ¿Emen ere bai alda Rosita enbat?  
EUJENIO           ¿Zer ba? ¿echian onela al zerate?  
LIBORIO           ¿Gizona! Rosita moñoña gora, Rosita polita bera,  
                      estarriko zuloraño betia naukate.  
EUJENIO           ¿Zuben neskazarrari nor-bait aldabilkiyo ondotik?  
LIBORIO           ¿Neska zarra? ¡Eztizu berak entzuten!; sudur ertzian  
                      bazinduzke bi. (*Bi masalleko.*)  
EUJENIO           Saguzar-tar Rosita, zapata aben jabia, ¿ezkondu  
                      alda?  
LIBORIO           Bai gizona, gaur da Romualdo de la Quintanilla ta  
                      Perez de Rostrofeo'n jaun-andria.  
EUJENIO           ¿Zenbatena?  
LIBORIO           Batena.  
EUJENIO           ¿Bat al da ori guztiya?  
LIBORIO           *Artilleri'ko kapitan* bat.  
EUJENIO           ¡*Artillerua* izan biar ura artzeko!  
LIBORIO           ¡Eztaka berak orretako! ¡Eztituzu ikusten alkarrekin  
                      kalian! Egun urte badituzte biyen artian, ta  
                      emezortzikuak dirudite.  
EUJENIO           ¡Choruak!  
LIBORIO           Eta ez emastiarengatik ezer esan. Lengo egunian,  
                      batek begiratu egin ziyola edo etziyola, artzendu  
                      zintzilik zeraman espata, ta kankarrarekin  
                      garronduan jo zuben.  
EUJENIO           Ta ¿zer esan ziyon bestiak?  
LIBORIO           ¡¡Ai!!  
EUJENIO           ¿Beste ezer ez?  
LIBORIO           Ez, korderik gabe erori zan ta.

EUJENIO            ¡Astua!  
 LIBORIO            Izugarrizkua. Eztiyote alkarri ezer zor. Itzuziya baldin bada bat, zakur presakua diruri bestiak, bere letagin ta guzti.  
 EUJENIO            ¿Zakur presakua? Orduan ez da arritzekua saguzarraren atzetik juatia... usayian.  
 LIBORIO            Bai usayian. (*Biatzakin diru usaya erakutziyaz.*)  
 EUJENIO            ¡Aiškiria! Etzaitu nagusiyak ikusten!  
 LIBORIO            Zer nagusi ta zer morroi. Orainchen erneatu zait. Soldadu etorri erregeri serbitzera diyotenez, eta pišamorrollokeri guztiyak egiten or nabilkite. Lurrari argizariya ematen, andriaren gonak garbitzen, eltzari aparra kentzen, oyak egiten...  
 EUJENIO            Ta oriñalak ustutzen.  
 LIBORIO            Baita.  
 EUJENIO            Ta laister... ¡looo... (*Aurrari lo arrazteko antzera.*)  
 LIBORIO            ¡Gezurra dek! nayo diat *arrestatuta kuartelera* juan.

V<sup>en</sup> IRUDIA  
 LENGUAK eta ROMUALDO

ROMUALDO        (*Oso asarre.*) ¿Zer egiten dek oraindikan emen? Echeko-andria sai dakak bi orduan.  
 LIBORIO            (¡Gezurra!)  
 ROMUALDO        Aditzen aldeak ¡astua!  
 LIBORIO            Sai nago, oraindik ez ditu bukatu.  
 ROMUALDO        ¿Ta orkillak? ¿erosi aldituk?  
 LIBORIO            Oraindik ez.  
 ROMUALDO        Ua ba bitartean eroatera ¡astua!, etzaik ezer jayotzen; nere konpañiko manduak ik baño geyo zekik.  
 EUJENIO            Esan akiyok orain usayian ibilli dala.

ROMUALDO Ua, ua azkar, bestela botako at zazpi egunerako gaztelura. (*Liboriok egingo du juatera.*)

EUJENIO Artu itzik, bukatu dizkiat; to, to. (*Liborio biurtuko da atetik zapatak artu nayian.*)

ROMUALDO Ua ortikan orkillen billa, gero artuko dituk abek... ¡euli mandoa!... Artu zazu, artu onelako mutilla echian... ¡¡jun!! (*Juango da besuak ibilliyaz eta oñakin otz aundiya ateriaz.*)

EUJENIO ¡¡¡Brum!!!... pum!!!... ¡antziak zezen-suzkua! ¡ori det labesomorra! ¡Ori juan izan bazan Melilla'ra garbitzen ditu Saldi, Michina, Gato ta beltz guztiyak... ¡Ai Arroša! maiz asko eman biarko diyozu kamamillen ura bi ašukre koškorrekin piškabat gošatzeko.

## VI<sup>en</sup> IRUDIA

### EUJENIO ta KRISTOBAL

KRISTOBAL (*Len bezela ate ondotik eta aurreko echera begira.*) ¡Egun on!

EUJENIO Emen dek berriz.

KRISTOBAL Egun on, Eujenio. (*Etorriko da mai aurrera, ta esheriko da Eujenio'ren aurrez-aurre dagon alkiyan. Onek ikusiko du eskutitza ta artuko du eskutatzeko asmoan bañan ez indianuak igarri gabe.*)

EUJENIO ¡Bai beorri ere!... ¡ai ta eskutitza... ¡ikusi dik!... ¡galdua nak!

KRISTOBAL ¿Zer dezu ori?

EUJENIO ¿Au?... zea... zea... kontua... zapata aben jabiarentzat... barrenen bialtzeko... (*Bildu ta sartuko du Rosita'ren zapata baten barrenen.*)

KRISTOBAL      ¿Diru eske beti?  
 EUJENIO        Jan biar ba degu.  
 KRISTOBAL      Agindutakoa ekartzera nator. (*Dirua patrikatik ateriaz.*) ¿eraman dezu?  
 EUJENIO        Bai, jauna.  
 KRISTOBAL      ¿Ta nork artu dizu?  
 EUJENIO        ¿Nork?... (baleki).  
 KRISTOBAL      ¿Etzeniyozun neskamiari emango e?  
 EUJENIO        Ez jauna... Rošita berari emandiyot.  
 KRISTOBAL      ¿Ta zer esan dizu?  
 EUJENIO        Itzik ere ez.  
 KRISTOBAL      ¿Esan aldiyozu eguardiyan juango zerala erantzupenaren billa?  
 EUJENIO        (Aurrea gezurrakin)... bai jauna.  
 KRISTOBAL      Juan biar dezu, ta ori ondo ateratzen bazait, ez naiz zuzaz astuko... Tori orain au.  
 EUJENIO        (¡Bost pestakua!) Eskarrikasko.  
 KRISTOBAL      Zoluerdi aben alde, ta geyo dana zuretzat.

## VIIen IRUDIA

### LENGUAK, LEONCHIO ta LIBORIO

LEONCHIO        (*Atian agertu orduko luzatuko diyo Eujenio'ri eskutitza*)  
 To eskutitza.  
 EUJENIO        Ago išilik.  
 LEONCHIO        To, ta eraman akiyok beriala, iya eguardiya dek eta.  
 EUJENIO        (*Asiko da zapatazar bat malluz joka aopian esanaz.*) ¡Ilko at, ilko at!...  
 KRISTOBAL      ¿Zer dezu ori?  
 EUJENIO        Zea, beste kontu bat... orain beriala eraman biar detana... onek egiten nazki danak eta...  
 KRISTOBAL      ¿Liburuak eramateko bai aldezu *tenedoria*?

EUJENIO                    *Baita kucharia ere. (Ori esaterako alcha ta juango da atze aldera Leonchio'ri ukabillazo bat emateko asmuhan.)*

LEONCHIO                *¡Jo ta utz...! ¡bule!*

KRISTOBAL               *Azkar etorri ori eramanda; sai egongo naiz.*

EUJENIO                    *Bai jauna. (Ez naiz etorriko zazpi orduan)*  
*(Leonchio'ri.) ¡ilko at!*

LIBORIO                    *(Sartuko da eskuan erratza ta beste zerbait gauzarekin.)*  
*Echeko-andriaren zapatak.*

EUJENIO                    *¿I ere emen alaiz?... artu itzik or zioztik.*

LIBORIO                    *Egun on. (Artuko ditu zapatak eta irtengo da beriala.)*  
*(Bitarte onetan Leonchio, Eujenio'ren ondorendik juanta dago ate onduan keñuka ura chuliatu nayian. Ikusiko du Kristobal'ek eta alchako da jakin nayian zeni egiten dizkan ta orduan sartuko da ura.)*

KRISTOBAL                *¿Norekin ari da ori or?*

### VIII<sup>en</sup> IRUDIA

#### KRISTOBAL ta LEONCHIO

KRISTOBAL                *¿Nori egiten zenizkan keñu oyek?*

LEONCHIO                *Or aurreko neskacha gaste bati.*

KRISTOBAL                *¿Zeni, zeni?*

LEONCHIO                *Sudurpolitaneke Rošita'ri*

KRISTOBAL                *¿E?... ¿bai aldezu arrekin zer ikusirik?*

LEONCHIO                *¿Nik? nola ez, nere andregaya data.*

KRISTOBAL                *¿Zure andregaya? ¿noiztik?*

LEONCHIO                *Orain dala (zenbat esango det) zazpi urte ezkerro.*

KRISTOBAL                *Ez da ori egiya.*

LEONCHIO                *Zazpi urte ez dira ez; izango dira bederatzi ¡noletan ez! asi giñanian neska gaste-gastia zan eta orain iy-  
iya zartu da ta.*

KRISTOBAL Ez ba, oraindikan ondo sasoikua ta ederra dago.  
LEONCHIO Bai, bai, bakallu zar beratu gabia diruri.  
KRISTOBAL ¡Ez da ori egiya!  
LEONCHIO ¿Zer da ba?  
KRISTOBAL ¡Gezurra!  
LEONCHIO (*Oso mamitzu.*) ¿Ta zuri zertzaizu?  
KRISTOBAL ¿Neri? ezer ez...  
LEONCHIO Uste nuben ba.  
KRISTOBAL ¡Bai zera! (erneatzen nau ni onek)  
LEONCHIO Bañan orain aspertu naiz.  
KRISTOBAL Izan ere, aspertzeko garaya bada orrenbeste luzatu ezker. Utzi egin biar zenduke.  
LEONCHIO Lau bider utzi det eta beste ainbeste aldiz etorri zait negarrez nerekin ezkondu nai dubela esatera.  
KRISTOBAL Maitasun aundiya diyozu.  
LEONCHIO Ainbestekua nun ni ez bezelako asko utzi ditun parragarri. Orain bertan indiano bat, berrogei milla pesoko echia egiten ari dana.  
KRISTOBAL (*Oso larri.*) ¿Egiya da ori?  
LEONCHIO Bai gizona, izena ere badakit eta esango dizut nai badezu. (beria, ia zerraldo eroritzen dan.)  
KRISTOBAL Ez esan ez, (¿ni ote naiz? ¡au larriya!... ¿zein da au?  
LEONCHIO ¡Ai Rošita, Rošita!  
KRISTOBAL Gaizki egiten dezu ba neska orrela idukitzia ta utzi egin biar zenduke.  
LEONCHIO Bai, ez naiz oyen artian sartuko. ¡A zer bi ama alabak! Bat sorgiña bada, bestiak inpernuko echekoandria diruri bere bizar ta guzti.  
KRISTOBAL (Sututzen nau lotsagabe onek.)  
LEONCHIO Aozabalak, berritsuak, sorgiñak.  
KRISTOBAL (*Indarrakin.*) ¡¡Ez da egiya!!  
LEONCHIO ¿Zer da ba?  
KRISTOBAL ¡¡¡Gezurra!!!  
LEONCHIO ¿Ta zuri zertzaizu?



KRISTOBAL Neri... ezer ez... ¡aja, ja, ja!

LEONCHIO Ba diruri ba... ¡aja, ja, ja!

KRISTOBAL Zu gizona, mutilla edo zeana: gaizki egiten dezu onela inongatik jarduntzia.

LEONCHIO (Nik oni Madrid'ara juateko dirua *zarpatu* biar diyot.) Bai, arrazoi dezu, neonek esagutzen det; bañan zer egin ez jakiñak jartzen nau buru auste aundiyan. Bi bide bakarrak ikusten ditut zabalduak: Ez egiteko enbat egin edo urrutira juan geyo bere berririk jakingo ez detan lekura. (*Geldituko da buruari elduaz.*)

KRISTOBAL (Erua dago, zerbait gaiztakeri egingo du. ¡Ai Rošita! ¡Ai Kristobal!

LEONCHIO Aurreneko buruzbiderako au naikua det. (*Mai gañetik zapatagillearen labana artuaz.*)

KRISTOBAL Ez, gizona, ez, bigarrena dezu errezena, urrutira juatia, Ameriketara edo...

LEONCHIO Pozik ara, ¿bañan nola? ardipat ez badet?

KRISTOBAL Gizona, arkituko dezu. Ez da gaur asko biar; milla bat pesetakin asko dezu.

LEONCHIO Milla peseta, ez ditut eta ez ditut izango... berak ematen ez banazki eskatu dizkaten bezela. (*Juanaz ate aldera.*)

KRISTOBAL ¿Nora zuaz?

LEONCHIO Bera gana; eguardiya da, ta ordu onetako sai egoteko esana daukat.

KRISTOBAL (Ta *presisamente* nik ere bai.) Jauna, jauna ¿zer gertatu biar du?

LEONCHIO Agur.

KRISTOBAL Zaude, zaude.

LEONCHIO ¿Zertako?

KRISTOBAL (Kristobal, Rošita gatik emantzak...) ¿Nai dituzu milla peseta Ameriketara beriala juateko?

LEONCHIO ¿Nork emanda?

KRISTOBAL Nik.  
 LEONCHIO Ez, nayo dizkat berari kendu, ta ezpanazki ematen...  
 ¡jas!

KRISTOBAL ¡Ai Rošita, Rošita!... Tori, tori... (nere eheko  
 langillientzat neamana).

LEONCHIO (*Botako du labana lurrera eta artuko du dirua.*) Ekatzu  
 ba, eskarrikasko. Lagundu nazu tren bidera, an  
 azkeneko besarkada eman dizutan.

KRISTOBAL Ez, zuaz bakarrik. Eujenio'ren sai gelditu biar det.  
 LEONCHIO ¡Gizon bulartsua! ¿zure izena?  
 KRISTOBAL Ernialde'tar Kristobal ¿ta zuria?  
 LEONCHIO Aizgorri'tar Leonchio. (*Elkarri esku emanaz.*)  
 Kristobal eskarrikasko... ¡¡Rošita, betiko agur!!

## IX<sup>en</sup> IRUDIA

KRISTOBAL (*bakarrik.*)

KRISTOBAL ¡Rosita neria da! Jaunari eskerrak gaur emen gertatu  
 naizela. Garešti šamar jo nau bañan Rošita gatik  
 ondo emanak daude guztiyak. ¡Ori gizaseme  
 zakarra! Eztet uste igarri nauenik Rošita ganako nere  
 maitasuna, ain ederki eskutatu det, bestela ¡ui!  
 garbitzen nau. Ori ez bezelakochia artu biar nau ni;  
 dirutsua, biyotz bera ta moñoñua. ¡Oraindik ez  
 banago ba ni guztagarriya! Eujenio ez da ageri.  
 (*Erlejuari begira.*) Eguardiya. Erantzupenaren billa  
 juateko ordua. (*Karrika begira.*) Ez da ageri Eujenio...  
 ta ezta Rošita'ere. (*Aurreratuko poliki poliki eta bat-  
 batian artuko du asmo berriya.*) Neroni juango naiz.  
 ¿Zergatik ez?... bai; ta emengo gertaera esaten  
 diyotanian, ta Lenchio zer dan agertzen diyotanian,  
 ta nik egin detana jakiten dubenian ¡a! bene benetan

bayezkua emango nau, gañeaz abek danak ikusten banazki. (*Erlejuaren katiá, errastunak...*) Ta *presisamente* gaur erretena ere, nere ille ederrian, egundaño baño obeto atera det... banijua. (*Antolatuko da pishkabat.*) ¡¡Guazen moñoño!! (*Irtengo da gora begira.*)

## X<sup>en</sup> IRUDIA

### EUJENIO gero LEONCHIO

EUJENIO                    ¡Ui! eskerrak gora begira dabillega bestela arrapatzen nau. Rošita gana dijua. (*Aurreatuaz.*) Eztaka keska makala zer esaten diyon jakin artian.

LEONCHIO                Eujenio, ire billa nebillek.

EUJENIO                    ¿Zertako?

LEONCHIO                Bazkari on bat elkarrekin egiteko.

EUJENIO                    Nik eorri bazkalduko at. ¿Ezer bai aldaki?

LEONCHIO                Dana.

EUJENIO                    ¿Eskutitza iriki degula?

LEONCHIO                Dana.

EUJENIO                    (*Lepotik eldu nayian.*) ¡Ator onera, ilkoat!

LEONCHIO                Orain ago geldirik. Guazemak bazkaltzera ta gero ilkonak.

EUJENIO                    ¿Irekin? ¡Ezta Ezkurra'nea ere! lotsik gabeko kirtena, zorrez jositako alperra...

LEONCHIO                (*Aterako ditu diru paperak eta berakin joko du abuan.*)  
Chist...

EUJENIO                    ¡Oi! ¿zer dira oyek?

LEONCHIO                ¿Abek? ikusi itzik.

EUJENIO                    ¿Zenbat dira?

LEONCHIO                Ia, zenbatu itzik, egunekuak dituk. (*Eskuan artu ta zenbatuaz.*)

EUJENIO Eun ta un berreun, ta berreun larogeitaeun, ta eun amarrogei ta lareun.

LEONCHIO ¡Aja, ja, ja...! ¡yayua ago!

EUJENIO Ez, ez gaizki arinukan, ago. (*Biatzakin zenbatuaz.*)  
Eun ta eun (bat, bi) bieun ta eun (bat, bi, iru), iru eun.

LEONCHIO Iru eun, bai, iru egun; ondo ari aiz: igandia, astelena ta asteartia, ik egingo ditukan iru jayak.

EUJENIO ¡Bai zera! gaur ezniak.

LEONCHIO Ez, zera egingo dek. Emen zioztik lau milla errial.

EUJENIO ¿Nola arranotan atera dituk?

LEONCHIO Ire eche jabiak eman zizkiak.

EUJENIO ¿Kristobal'ek eman lau milloi, edo lau mi-milla errial?... ¿zer egin diyok ba?

LEONCHIO Ezer ez, gaur ziokan šamurra...

EUJENIO ¿Ta bigar?...

LEONCHIO Simurra. Ichizak atia ta guazemak Bartolo'nea bazkaltzera.

EUJENIO Ua aurretik, beriala nak irekin.

LEONCHIO Aurki arte, sai egongo nak. (*Jantziko du Eujenio'k zintzilik zeukan chamarra ta arren lekuan jarriko du mantala.*)

EUJENIO Nere echejabia erotu egin da. Neri dirua eskañi, Leonchio'ri eman, neskaren atzetik asi... ¡ai, ai, ai!... orrenak egin du. Nola ote dago orain Rošita'ren onduan... baba dariyola. ¡Ai Rošita, Rošita! ¡Ai Kristobal, Kristobal!

## XI<sup>en</sup> IRUDIA EUJENIO ta KRISTOBAL

*Eujenio'k azkeneko itzak esaten ditunarekin batian sartuko da Kristobal antzika ta marruaz, norbaiten gandik igaz baletorke bezela. Etorriko da buru*

*utzik, eta ain utzik non ille bat ere agertuko etzayon, illordea (peluka) galdu baidu. Soñekuak ere oso banatuak eta tresna oso charrian. Eujenio'k ez du ezagutuko, ta ikusten dubenian ichura artako gizona, etorriko da aurrera; orduan Kristobal'ek egingo du ori bera ta arrek ikusirik gañera datorkiyola, juango da maiz atzera, ta izur-zaparran Kristobal ere bai; bañan trabatuko da alkiyan eta eroriko da lurrera alki, mai ta guzti.*

KRISTOBAL        (*Sartuaz.*) ¡Ai Eujenio, Eujenio!  
EUJENIO            (*Aurreatuaz.*) ¿Zein da au?  
KRISTOBAL        (*Aurreatuaz.*) ¡Ai Eujenio, Eujenio!  
EUJENIO            (*Mai atzera.*) ¡Geldi, geldi! Zuaz emendik.  
KRISTOBAL        ¡Eujenio, lagundu nazu! (*Eroritzen da mai ta guzti.*)  
                      ¡Ai, ai, ai, ai!... ¡il naiz! ¡il naiz! ¡zer sartu zait neri  
                      emen?  
EUJENIO            ¡Oi! ¿beorri al zan?  
KRISTOBAL        ¡Ai! ¡ai! Eujenio, ¿zer sartu zait emen? (*Esten bat  
                      berepetik ateriaz.*)  
EUJENIO            ¡Takoi estena!  
KRISTOBAL        ¡Il naiz... ¡ai, ai!  
EUJENIO            Ez, gizona; alcha bedi, ara... ¡aupá! Bañan, ¿zer da  
                      ichura ori?  
KRISTOBAL        ¿E?  
EUJENIO            ¿Nola dator? ¿zer gertatu zayo?  
KRISTOBAL        Eztakit; bañan, Eujenio, il naute. (*Eskuak bururatuko  
                      ditu eta arkituko da utsik illordea galduta; orduan eruaren  
                      antzera asiko da batera eta bestera.*) ¿Oi?... ¿non det?...  
                      ez dakat... ez dakat... buru utsik nago. ¡Ai nere  
                      burua! ¡ai nere illia! ¿zer esango dute ni orrela  
                      ikusten nautenak? ¡Ai nere burua! ¡ai nere ille  
                      ederra! ¡ai nere erretena!  
EUJENIO            Erotu eginda. (*Bere aurrez-aurre jarri ta oju egingo  
                      diyo.*) ¡Kristobal!

KRISTOBAL (*Geldituko da bat-batian bere aurrian ta eskuak burutik kenduaz erakutziko diyo esanaz.*) ¡Begira! ¡¡begira!!  
¡¡¡begira!!!

EUJENIO Plandesko gazta diruri.

KRISTOBAL Ekarri nazu beriala, Eujenio.

EUJENIO ¿Plandesko gazta?

KRISTOBAL Ez, nere illordea.

EUJENIO ¿Non dik?

KRISTOBAL Or aurretik, sorgiñ oyen echetik.

EUJENIO (¡Ai ama! asarretu egin dituk.) ¿Bañan noletan galdu du?

KRISTOBAL Galdu ez, kendu egin naute. Zuaz, zuaz azkar, Eujenio.

EUJENIO ¿Ni? ¿Ederki eman ere! ez nijua.

KRISTOBAL Egin nazu esker ori.

EUJENIO Ez, ez, ni orrela jartzen banaute egun guztiyan *dominištikuka* egongo naiz.

KRISTOBAL Nere illordea ekartzen banazu, artzeko nagon diru guztiya barkatuko dizut.

EUJENIO ¿Orain arteko guztiya? juango naiz. Bañan, ¿zer gertatu zayo?

KRISTOBAL ¿Nik aldakit? Nola zu agertzen etziñan juan naiz neroni Rošita'ren echera, jo det atia, irten zait andre motz bat, ta entzunik zein naizen asida marruaka esanaz charkeri ayek etzaizkala iñori esaten, guchiyago berriz bere Rošita ederrari, ta gero geyo ta gero geyo igoda, asarrian sutu arte, nik itzik ulertzen ez detala, eta etorri zait gañera, ta atzamarka, ta ostikoka, ta koskaka, ta ipurdi-trankaka atera nau ate ondotik eta bota nau amilka malletatik bera ankaz gora.

EUJENIO ¡Gizona, gizona!

KRISTOBAL Ori asko ez detala, ni lurrian nagola atera du oñetik eskralaproi alako bat, ta bota nau indar guztiyakin burura.

EUJENIO ¿Gizarajua! ¿Ta ez tiyo esan zergatik zeuden asarre?

KRISTOBAL Eskutitzaren gatik ba; bañan ezin leike orrengatik izan, oso ondo egiña zeon ta.

EUJENIO ¿Orduan?

KRISTOBAL *Presisamente* zazpi egun biar izanditut naiko itz gošo ta egoki biltzeko.

EUJENIO Chinisten det.

KRISTOBAL Eujenio, arren eskatzen dizut, zuaz eta ekarri nazu illordea.

EUJENIO ¿Emango al naute?

KRISTOBAL Bai, gizona, ¿zertako dute ura? (*Patrikatik ateriaz.*) Tori orain arte zor nazkitzun eche-errentaren chartelak.

EUJENIO Eskarrikasko, banijua; beriala emen naiz bizirik usten banaute.

KRISTOBAL Zaude, zaude: ¿ta norbait etortzen bazait bitartian? ¿Zer egingo det ichura onetan?

EUJENIO Ez larritu, iñor guchi etortzenda.

KRISTOBAL ¿Ta etorriko balitz?... eskutatu nazu bitarteako.

EUJENIO ¿Nun? ¿mai pian?

KRISTOBAL Ez, chikiya da.

EUJENIO Beste lekurik ez det ba.

KRISTOBAL (*Ikusirik zintzilik dauden boina ta mantala.*) ¡A! abek jantziko ditut eta onela iñork ez nau esagutuko.

EUJENIO Ez ala da ¡aja, ja, ja...! ta ez dago gaizki, zapatagille jatorra diruri.

KRISTOBAL (Bazenekizuke Ameriketan zer nitzan) Zuaz aguro par guchirekin.

KRISTOBAL, gero LEONCHIO

KRISTOBAL Eztet nik par aundirik egiten. ¡Ai jauna! au eguna sortu zait neri gaur! ¡Nun dira nere gaur goizeko apainketak!, nere ur usaidunez busti ta erreten zuzena ateratziak! (*Entzungo da kaletik*)

LEONCHIO (*Barrendik*) ¡Eujenio!

KRISTOBAL ¿E? ¿zapatagillearentzat ote da? Ešeri nayan bai-ezpadare ta ia nola egiten detan arren *papera*. (*Esheriko da mai aurreko alkiyan atia'ri atzia emanaz, bañan egingo du antzi bat ta alchako da bizkor.*) ¡Ai! ¿zer dago emen? Zoluerdi bat iltzez josiya! ¡arranua! au ere nere kaltez. (*Artu ta botako du arrika Leonchio ate aurrian jartzen dan garai berian ta joko du arpegiyan.*)

LEONCHIO ¡Ai!

KRISTOBAL Norbait jo det, gaur ni ill egingo naute.

LEONCHIO ¿Erotu egin alda au?

KRISTOBAL (*Eseriko da ta asiko da laneko antzera; ikusirik ingurura datorkiyola ekingo diyo. Ni peka tariya... ezatiari.*) Badator, badator... Ni pekatariya konfesatzen naitzayo Jainko guztiz aldunari... nere kulpaz... nere kulpaz... (*Bitarte onetan aurreratuko da Leonchio ta botako diyo zolu zarra burura.*)

LEONCHIO Oi, lanari eraso diyo. Ta ni bazkaltzeko onen sai. Aterako dizkitzut nik kaikukeriyak.

KRISTOBAL (*Ikaraz beterik alcha ta juango da eskubitako ormara ta an norbaitekin ari balitz bezela asiko da eskuan dituben mallu ta zapatarekin keñadaka.*) ¡Ai, ai, ai!... ¡laga neri! ¡alde, alde emendik!... bestela ilko zaitut... tori, tori... (*Gelditu ta ishildu ta jarriko da arma aldera begira Leonchio'ri bizkarra emanaz.*)

LEONCHIO ¡Buru ori eztakak ondo!

KRISTOBAL ¿Zertzaizu zuri nere buruarengatik. ¡Oi! Leonchio da! (*Eskutatuko du arpegiya esku artian, beti ormari*)



*begira. Etorriko da Leonchio ta ikusirik alperik dabillega arpegiya ikusi nayian, eldu ta aterako diyo chapela eta joko du ukabillarekin buru gañian.)* ¡Kaikua! ¿zer uste dezu dala nere buruba?

LEONCHIO ¡Oi! ¿Kristobal al zera? (*Len bezela ukabillaz juaz.*)  
Katuari bezela *desmayo* prantzezak eldu zizula uste nuben.

KRISTOBAL ¡Astua! ¿egongo al zera geldirik?

LEONCHIO ¡Ori da *meloya* dezuna!

KRISTOBAL ¿Ta zuri zertzaizu?

LEONCHIO ¿Tifus enbatekin galde al dezu illia?

KRISTOBAL Ez... *trankazo* batekin.

LEONCHIO ¿Orain?

KRISTOBAL Ez... aspaldi; Ameriketan.

LEONCHIO ¿Ameriketan? Orduan batere ez nua. Ez tet nik tipula bezelako burua izan nai.

KRISTOBAL Arrazoi dezu, obe dezu gelditu. Ekaizkitzu milla pesetak.

LEONCHIO ¿Milla peseta? ¿zeñenak?

KRISTOBAL Neriak, nik eman dizkitzutenak.

LEONCHIO Eman banazkitzu eztira orduan zuriak.

KRISTOBAL Bai, bañan...

LEONCHIO ¿Zer bañan? nere gauzen jabe ni naiz, ta ez nazu zuk erakutziko berakin zer egin bear detan.

KRISTOBAL Lotsagabe tzarra. Ostu egin nazu, ekatzu neria.

LEONCHIO Nik, ¡aja, ja, ja...!

KRISTOBAL Ekatzu, ekatzu.

XIII<sup>en</sup> IRUDIA  
LENGUAK eta EUJENIO

EUJENIO (*Eskubatian illordea zintzilik eta bestian eskutitza.*) Ar beza.

KRISTOBAL ¿E?... ¡A nere illordea! ekatzu... ¡ui! zikiña dago... ¡¡¡pua!!!... ¡au usaya!... ¿zer du onek?

EUJENIO Zakarretara botia zekaten, ta andik atera det perloymen este ta katuaren zikiñ artetik.

KRISTOBAL ¡¡Pua!! ¡au nazka! (*Tartetik ateriaz.*) ¿Zer da au? Porru perrejil šorta...

EUJENIO Esan naute au ere ekartzeko; ez dutela Rošita gatik onela jartzen duben eskutitzik ikutu nai, ezta puskatzeko ere.

LEONCHIO ¿E? orrek Rošitari idatzi al diyo.

KRISTOBAL Bai ¿ta zuri zertzaizu? Ekatzu, Eujenio. (*Kristobal'ek baño lenago Leonchio'k aterako diyo eskutik.*)

LEONCHIO Nik irakurritzian emango dizut.

KRISTOBAL Ekatzu orain bertan, neria da ta.

LEONCHIO Emango dizut, bañan irakurtzian; (*Kristobal etorriko da eskuan illordea dubela Leonchio'ri eskutitza kentzera ta onek jo ta botako diyo lurrera.*) eztali zazu zuk bitartian illargi-bete ori, ta zuaz emendik ille usai zikindun orrekin.

KRISTOBAL ¡Alproja, lotsagabe!

EUJENIO (*Illordea jasuz.*) Guazen garbitzera.

LEONCHIO (Nik egindako eskutitza; astu ere egin zait zer jarri diyotan):  
 “Rošita sorgiña, neskazar zinbruna, ortzustel zatarra...

KRISTOBAL Ori ez da nere eskutitza.

LEONCHIO “Ori guztiya ta geyo zeralako, iñor gizon ingurutuko etzaizulako, ta ezkontzeko amorratua zaudelako, ni Kristobal de los Ernialdes...”

KRISTOBAL ¿E, zer esaten dezu, gizona?

LEONCHIO ...“ni Kristobal de los Ernialdes, indiano jatorra, ankoker traketza, muturbeltz zekena...”

KRISTOBAL           Zaude išilik, ez du ori jartzen ta.  
 LEONCHIO           (*Azarre antzian.*) ¡Zuaz emendik!... Eujenio eldu  
                           nazak bestela ilko diat nik ori.

EUJENIO             ¿Zer ari aiz irakurtzen?  
 LEONCHIO           Ilko detala, eltzeko eltzeko aguro.  
 EUJENIO             (*Jarriko da bere atzian bi besuetatik elduaz.*) Ao ba  
                           geldirik.

LEONCHIO           ¿Eusten al nak ondo?  
 EUJENIO             Bai.  
 LEONCHIO           “Begiyak ichita, jardunari gogor eginda, keskarik  
                           gabe, bulartsu ta biozdun, jartzen naiz zurekin  
                           ezkontzera, ta zu ¡itzusi puska! nere emastetzat  
                           artzera...”

XIV<sup>en</sup> IRUDIYA  
 LENGUAK eta ROMUALDO

ROMUALDO           (*Sartuko da oso bizi, ta zuzen-zuzen juango da  
 Kristobal'engana eskuko makilla alchiaz.*) Zu zapatagille  
                           zarpalla, ¿zenen eraman ekarriya zera zu?

KRISTOBAL           ¿Ni?  
 ROMUALDO           Zu, lotsagabe tzarra. ¿Nai aldezu burua puskatzia?  
 KRISTOBAL           Ez, ez, naikua det lenokua.  
 ROMUALDO           Zer bialdu diyozu nere emastiari zapataren  
                           barrenen?

KRISTOBAL           (1) Nik...  
 EUJENIO             (¡Oi! Rošitaren eskutitza, nik sartu detana.)  
 ROMUALDO           Bai zuk.  
 KRISTOBAL           Ni ez naiz zapatagillea, ura da.  
 ROMUALDO           ¿Ori? ¿ta noletan zaude zu mantal orrekin?  
 KRISTOBAL           Ez takit.  
 ROMUALDO           ¿Ez dakizula? (*Emango diyo bultza aldi bat eta jarriko  
                           dira biyak izketan.*)

EUJENIO Guazemak i azkar.  
 LEONCHIO ¿Zer egin dek?  
 EUJENIO Ik bustidekan eskutitza eskutatziengatik zapata  
 zarren barrenian sartu, ta *asistentiak* eraman.  
 LEONCHIO Ta orren emastiak artu.  
 ROMUALDO (*Eujenio'ri.*) ¿Zu zera beaz e?... atoz onera.  
 LEONCHIO (*Inguratzia galaziyaz.*) Ez, utzi zayozu oneri. Ori da  
 eskutitzaren jabia, zapataren barrenen bialdu  
 dubena: Kristobal de los Ernialdes.  
 KRISTOBAL ¿Ni, ni?... ¿nik orren emastiari idatzi?... ez ta egiya.  
 LEONCHIO Bai, jauna; ta baita beste bati ere: ara non detan...  
 orretan jarduntzen da.  
 ROMUALDO ¡Ikusiko dezu eulimandua!  
 KRISTOBAL Nik bati bakarrik egin diyot, Rošitari, ta da asko  
 maite detalako.  
 ROMUALDO ¡¡¡E!!!... ¡ta esan egiten du.  
 KRISTOBAL Bai ba, ta *presisamente.*  
 ROMUALDO Ilko det... tori... tori...  
 LEONCHIO Eman, eman.  
 KRISTOBAL ¡Ai, ai!... *presisamente, presisamente.* (*Eujenio'k elduko*  
*diyo besotik Romualdo'ri ta geldi araziko du jotzetz.*  
*Orduan igaz egingo du Kristobal'ek presisamente*  
*esanaz. Romualdo geldituko da errabiz josirik*  
*iruditegiyaren erdiyan, geldi-geldi, arpegi utzez*  
*erneaziyozko keñu zatar batzubek egiñaz.)*  
 EUJENIO ¡Kristobal gizarajua!... ¡zaude geldik gizona!  
 ROMUALDO ¡¡A!! eztet ill, eztet ill... zure gatik.

(1) Eujenio, Leonchio, Romualdo, Kristobal.

XV<sup>en</sup> IRUDIA  
 LENGUAK, (Kristobal gabe) ta LIBORIO

LIBORIO                    ;Jauna!  
ROMUALDO                ;Eztet ill! ;bizirik juanda!  
EUJENIO                    Kristobal gizarajua iya garbitu zuben.  
LIBORIO                    Nagusi jauna.  
LEONCHIO                 (*Romualdo'ri.*) Zure billa dator.  
ROMUALDO                (*Oso garratz.*) ;Zer egiten dek or?  
LIBORIO                    Echekoandriak esan nau oso *triste* dagola bakarrik eta azkar juateko.  
ROMUALDO                (*Sakarkeri danak laga ta jarriko da bat batian oso biozbera, ta esango du legun-legun.*) Izan ere, nere Rošita kuthunak, ni gabe, bakar-bakarrik damazki iru ordun laurden. (*Erlejuari begira.*) ;Nere bildoch maitia!... (*Ori esanaz juango da, ta Liborio atzetik aurrena soldaduak oi duten bezela eskua iguaz agur eginda.*)

XVIen IRUDIA  
EUJENIO ta LEONCHIO

LEONCHIO                 ;Zer aize bolarak jo ditu gaur agure oyek, ;aja, ja, ja!  
;Iri ere šamurtu egin altzaik biyotza?  
EUJENIO                    ;Zer esaten dek?  
LEONCHIO                 ;Andre gai billa asi biar dekan?  
EUJENIO                    Andre gai billa ez bañan gaur bertan denda billa bai.  
LEONCHIO                 Abek aitu arte ez. (*Dirua erakutziyaz.*) Guazemak Bartolonea.  
EUJENIO                    Ez niak.  
LEONCHIO                 Ik egingo dek nik nai detana. Juango gaituk orain Bartolo'nea, gabian Ezkurra'nea, bigar Urbana'ra, etzi Mallorkina'ra.  
EUJENIO                    Ta etzi-amu Turkonera (*kanposantura*).  
LEONCHIO                 Ibilduko gaituk goizian kochian, eguardiyan trenian, artzaldian automobillian, ta...

EUJENIO

LEONCHIO

EUJENIO

LEONCHIO

Ta gabian oyera aidian.

Danetara, abek aitu artian ¡¡parranda!!

¿Eta egoki arkitzen aldek ni orrela ibiltzia?

Aiñ egoki, nun ik emango dekan ontzat esaera zarra.

¡Aldiz, aldiz  
zapatagillea zaldiz!